

Autoría: Manex Agirre, Jokin Labayen, Lierni Altuna, Nerea Urra, Enaitz Alustiza, Xabi Igoa

Grupo/centro: Arrasateko Bertso Eskola

Lugar: Arrasate (Gipuzkoa)

Título: Zertarako eskola? (Bertso sorta)

"Errespetuak dauka
hainbat kategori",
"platerean daukana
ez kendu inori"
"zer egin behar duzun
pentsa zazu ongi"...
Eskolak erakutsi
zigun guzti hori.

2

Eskolak irakasten
dizkigu baldintzak
Eskolak bideratzen
dizkigu bizitzak
baina ez du askorik
balio jakintzak
hitzari ez badio
laguntzen ekintzak.

3

Ekintzaren laguntza
hitzak ez badauka,
mundua egongo da
berriz be galduta,

denok pertsonak gara,
hau gogoratuta,
pobreziaren kontra
behar da burruka.

4

Pobreziaren kontra
borroka egiten
ahalegindu gizarte
honi eragiten
nahiz eta eskolatik
ikasita irten
zer etorriko zaigun
ez dugu jakiten.

5

Ezin da jakin zer den
etorriko dena.
Aberatsak nagusi
munduan barrena,
ezjakintasuna da
hiltzeko kondena.
Hezkuntza on bat ez al da
defentsa onena?

6

Hezkuntza on batekin
ta defenditzera!
Egin dezagun denok

berdintasunera.

Denok edukitzeko

eskolan aukera.

Pobreziaren kontra

guztiok batera!